

Egonaldi luzapena

Erasmus+, Amerika Latina eta Beste Norakoak

Ikaslea bere egonaldiaren luzapena erabaki ahal izango du, Erasmus+, Amerika Latina (AL) edo Beste Norakoak (BN) mugikortasunean delarik, honako baldintzekin bat etorrira: betiere **luzapena ez da ekonomiko finantzatua izango**, errekonozimendu akademikoa lortuko du soilik.

Luzapena eskatu ahal izateko, honako baldintzak bete beharko ditu:

1. Luzatzeko akordioa eta hartu beharreko neurriak **behin mugikortasuna hasita** lortu beharko dira (inoiz ez lehenago) eta egiten ari den Erasmus, LA edo BN mugikortasuna amaitu baino lehen. Mugikortasun aldia amaitu eta berehala egin behar da; ezin da etenik egin (oporraldiak eta unibertsitatearen itxialdiak ez dira "etentzat" hartzen).
2. Ezelako mugikortasun aldirik **ezingo da 12 hiletik gorakoa izan** (luzapena barne), ez eta mugikortasuna hasi deneko ikasturteko irailaren 30etik harago amaitu ere.

Baldintza hauek betez gero, hurrengo urratsak jarraitu behar dira:

1. Ikasleak UPV/EHUren **ikastegiko koordinatzaileari luzapena** gauzatzeko **oniritzia eskatu** beharko dio, ikaslearen jatorriko ikastegiak ezarriko lituzkeen baldintzak eta tramitazio epeekin bat etorrira.
2. **Helmugako unibertsitateari eskatu beharko zaio oniritzia** adieraz diezaion UPV/EHUren jatorrizko ikastegiko koordinatzaileari.
3. **Ikastegiak idatziz luzapen eskaera** bidali beharko dio Nazioarteko Harremanen Bulegoari (NHB), helmugako unibertsitatearen oniritziarekin batera, honek **onartu edo baztertu dezan**.
4. Behin, NHBaren onarpena jasota, **ikasleak aseguru poliza luzatu** beharko du. Egonaldi osoa estaliko duen istripu edo gaixotasunen aurkako aseguru poliza eta luzapen honen kopia UPV/EHUren ikastegiko koordinatzaileari bidaliko dio eta honek NHBri helarazi. Ikasleak izapide hau egin ezean, unibertsitatea salbuetsita egongo da egonaldian gerta litekeen edozein gertakarik eragindako erantzukizun orotik.
5. NHBk luzapena GAURen erregistratuko du, behin aurreko izapideak burututa.
6. Ikasleak **konpromiso akademikoa ere aldatu eta luzatu beharko** jatorrizko ikastegiko **koordinatzailearen laguntzaz**; ziurtatu beharko baitu eskatu duen luzapen aldian zehar egingo dituen irakasgaien egokiera eta bermatu egingo dituen ikasketen baliokidetzat.

Garrantzitsua

Ikasketen luzapena Latinoamerika eta Beste Norakoak programetan eskatuko luketen ikasleek **arreta berezia jarri beharko dute helburuko herrialdean legalki egon ahal izateko bide emango dizkion baimen eta dokumentuak berritzen**. Horretarako, kasuan kasuko unibertsitate zerbitzuei edo zuzenean, mugikortasuna hasi ahal izateko baimena eman zuten agintariei bidali beharko zaizkie, kontutan hartuta helburuko herrialdearen indarreko legeek ezarritako epeak.